

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4813

1600/2016 EBAZPENA, urriaren 26koa, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari gerentearena. Honen bidez, deialdia egiten da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESIko Urologiako atalburuaren lanpostua lehiaketa bidez betetzeko.

Barrualde-Galdakao ESIko Urologiako atalburuaren lanpostua – Galdakao-Usansolo Ospitalekoa – hutsik dago. Gerentzia Zuzendaritzak erabaki du lanpostua lehiaketa bidez betetzeko deialdi publikoa argitaratzea hauetan xedatutakoa kontuan hartuta: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko arau komunitatirik hirugarrena, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, eta zerbitzuburu eta atalburu medikoen deialdietan aplikatu beharreko merezimenduen baremoari buruzko Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1/2016 Instrukzioa. Lanpostua lehiaketa bidez beteko da oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan eskaerak aurkezteko epeko azken egunean baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek parte hartu ahal izango dute:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan estatutupeko langilea, funtzionario edo langile finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko osasun erakundeetako estatutupeko langile finkoa izatea, eta eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko lanpostu batean jardunean egotea edo lanpostua gordetzea dakarren beste egoera administratibo batean.

b) A1 lanbide-taldekoa izatea.

c) Urologia espezialitate/titulazioa edukitzea.

d) Fak.Esp. Urologiako mediku gisa gutxienez 3 urteko lan-esperientzia izatea.

2.– Deialdia argitaratzea.

Ebazpen hau osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian.

3.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

A.– Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali behar dituzte eskabideak (Labeaga Auzoa 46A, 48960, Galdakao), 15 egun balioduneko epean, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken egunaren hurrengotik hasita. Horrez gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke.

B.– Interesdunek Barrualde-Galdakao ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte beren eskaerak, datu guztiak barne hartuta eta curriculum vitaeaz (CV) lagunduta. Dokumentazioa honako hauek osatuko dute:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren kopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langilearen izendapenaren kopia konpultsatua, edo hala badagokio, langile finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Eskatutako titulazioaren kopia konpultsatua.
- d) Deialdia EHAAz azkenekoz argitaratu arte emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiri eguneratua, dagokion kategorian adierazita.
- e) Bete nahi den Atalaren kudeaketako memoria-proiektua.
- f) Meritu baloragarriak egiaztatzen dituzten dokumentu guztien kopia konpultsatua.

Osakidetzaren CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala balioztatuta dauden alderdiak ez dira nahitaez aurreko lerroetan adierazitako eran egiaztatu behar; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

4.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerenteak, ebazpen baten bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Osakidetzaren webgunean, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia zein den adierazita.

Baztertutako izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak egiteko, adierazitako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Baztertzeko arrazoia zuzendu daitekeen huts bat baldin bada, behin-behineko zerrenda hori argitaratzen denean, antzemandako akatsak 10 egun balioduneko epean zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak eransteko eskatuko zaie interesdunei, ohartaraziz hala egiten ez badute prozesutik behin betiko baztertuko direla.

5.– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

Erreklamazioak egiteko edo eskaeretakoa akatsak zuzentzeko epea amaituta, Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerenteak, ebazpen bidez, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian.

6.– Balorazio-batzordea.

A.– Barrualde-Galdakao ESIko Gerentzia Zuzendaritzak balorazio-batzordeko kideak ebazpen bidez izendatuko ditu. Ebazpen hori Osakidetzaren webgunean argitaratuko da, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio erakunde publikoko zuzendari nagusiari.

Ebazpena aurrerago adierazitako kudeaketa-proiektuak defendatzeko saio publikoa egin baino gutxienez 10 egun natural lehenago argitaratu beharko da.

B.– Balorazio-batzordeko burua zuzendari medikoa izango da, eta kide hauek izango ditu: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko zuzendariorde mediko edo zerbitzuburu korporatiboa, Pertsonaleko zuzendaria –hitzarekin eta botoarekin jardungo du–, eta hiru kide –horietako bat IVAPek izendatuko du–. Hiru horiek izangaiei eskatutako titulazioa eta espezialitatea eduki beharko dituzte,

estatutupeko langile finkoak, karrerako funtzionarioak edo langile finkoak izan beharko dute, eta deialdian eskainitako lanpostuaren maila funtzional bereko edo goragoko lanpostu funtzional bat izan beharko dute.

Batzordeko kide titular bakoitzeko ordezeko bat izendatuko da, aurrekoak huts eginez gero haren lekua hartzeko, eta kide titularrentzat zehaztutako baldintzak bete beharko ditu.

Barrualde-Galdakao ESIIn ez bada lehenago adierazitako batzordeko kideen posturen bat, Osa-kidetzako beste edozein zerbitzu-erakundetako maila baliokideko langile bat izendatu ahalko da.

C.– Balorazio-batzordeko kide guztiak modu indibidualean izango dira batzorde horretako kide. Funtzionamenduari dagokionez, independienteak izango dira, eta diskrezionalitate teknikoaren babespean jardungo dute, zuzenbidearen pean daudela alde batera utzi gabe.

Batzordearen osaerak emakume eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa beteko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, egoerek aukera ematen badute betiere. Beraz, sexu bakoitza ehuneko berrogeian ordezkatuta dagoenean, ordezkapen orekatua dagoela iritziko da.

D.– Batzordeko kideek esku harteari uko egin beharko diote, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitartez aldatua, adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, eta deialdia egin duen agintaritzari horren berri eman beharko diote. Kasu beretan, prozesuko parte-hartzaileek, edozein unetan, errekusazioa sustatu ahal izango dute, adierazitako lege-tes-tuaren 29. artikuluan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, balorazio-batzordeak adierazitako 30/1992 Legearen 22. artikulutik 27.era arte zehaztutako arauetara egokitu beharko du bere jarduna.

E.– Balorazio-batzordeko kide guztiek hitza eta bozkatzeko ahalmena izango dute. Erabakiak gehiengo hartuko dira, eta akta batean jasoko dira.

F.– Batzordeak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du, eta horren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du. Halaber, deialdiko oinarrien aplikazioan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta aurreikusi gabeko kasuetan, zein irizpide ezarri finkatuko du. Gainera, izangaiak ebaluatu baino lehen, ebaluatzeko irizpide zehatzak akta batean jaso beharko ditu, bertan jasotako oinarriei eta merituen baremoari jarraituz.

7.– Hautatzeko prozedura.

Izangaien merezimenduen balorazioak honako fase hauek izango ditu:

A.– Balorazio-batzordeak deialdia egingo die izangaiei, prozesuan parte hartzen uzteko eskariarekin batera aurkeztu duten memoriari dagokion kudeaketa-proiektuaren defentsa publikoa egiteko. Deialdi hori gutxienez, hamar egun lehenago egin beharko da, izangaien agerraldia noiz, non eta zer ordutan izango den adierazita, eta Osakidetzaren webgunean horren iragarki bat argitaratu beharko da.

Oro har, aurkeztutako kudeaketa-proiektuen defentsa publikoa egin baino lehen, balorazio-batzordeko kideek batzordeko kideei beraiei eragin diezaieketen abstenitzeko edo errekusatzeko arrazoi posibleak aztertuko dituzte eta organo deitzaileari jakinaraziko dizkiete.

Gero, deialdia egingo zaio izangai bakoitzari proiektuaren aurkezpena eta defentsa egiteko, eta ondoren, elkarrizketa bat izateko. Elkarrizketa horretan, balorazio-batzordeko kideek proiektuan jasotako alderdiei buruzko galderak egingo dizkiete izangaiari, gehiago argitzeko edo sakontzeko. Bai proiektuaren aurkezpena eta defentsa, bai elkarrizketa publikoak izango dira.

Izangaien proiektuen aurkezpen publikoa amaitutakoan, balorazio-batzordeak puntuazioa emango dio izangai bakoitzari, deialdiko oinarrietan jasotakoaren arabera.

B.– Merituen balorazioa.

Balorazio-batzordeak izangai bakoitzaren merituak baloratu eta puntuazioa emango du, deialdiko oinarrietan jasotakoaren arabera. Honekin batera dagoen eranskinean, deialdi honetako lanpostua betetzeko prozesu hauetan aplikatu beharreko merezimenduen baremoa jasotzen da.

C.– Akta eta izendapen-proposamena.

Epaimahaiaren Aktan, epaimahaiko kideek hautagai bakoitzari baremoko atal bakoitzean emandako puntuazioa zehazki jaso beharko da, baita epaimahaiak hautagaiei emandako puntuazio osoa ere, eta horrez gain, epaimahaiak puntuazioak emateko –bai hautagai bakoitzak aurkeztutako zerbitzuaren kudeaketari buruzko memoria-proiektuaren edukiaren puntuazioa, bai egindako aurkezpen publikoaren puntuazioa– oinarritzat hartu dituen alderdiei buruzko azalpen labur bat jaso beharko da aktan, baita beste ataletako puntuazio xehatua ere.

Deialdian, berdinketa hausteko irizpideak zehaztu daitezke, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoa kontuan hartuta.

Izendatua izateko, prozesu osoko puntuazio maximoaren erdia lortu behar da gutxienez, eta proiektua eta proiektuaren defentsa baloratzeko atalerako finkatutako puntuazio maximoaren erdia, nahitaez.

Era berean, aktak balorazio-batzordeak puntuazio handiena lortu duen pertsona hautagaiaren aldeko proposamena jasoko du.

8.– Prozeduraren ebazpena.

A.– Izangaiek aurkeztutako proiektuak eta izangaien curriculumeko merituak ebaluazio fasea amaitutakoan, balorazio-batzordeak izendapen-proposamen bat egingo dio Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerenteari puntuazio handiena lortu duen izangaiaren aldekoa, izangaiek baremoko epigrafe bakoitzean lortutako puntuazioak banaka zehaztuta.

Ez baldin badago deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituen izangairik edo eskatutako gutxienerako puntuazioa betetzen ez badute, balorazio-batzordeak deialdia hutsik uztea proposatuko du. Proposamen hori Osakidetzaren webgunean argitaratuko da.

B.– Barrualde-Galdakao ESIko Gerentzia Zuzendaritzak, egindako proposamena aztertuta, proposatutako izangaia deialdian eskainitako lanpostua betetzeko izendatzeko edo deialdia hutsik uzteko ebazpen bat emango du.

Azken kasu horretan, arrazoa adieraziko du eta hauetakoren bat izan beharko du:

a) Ez da izangairik aurkeztu. Kasu horretan Gerentzia Zuzendaritzak deialdia hutsik utzi ahal izango du, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, izapide gehiago egin behar izan gabe.

b) Ez dago deialdiko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituen izangairik.

c) Ez dago eskatutako gutxienerako puntuazioa lortu duen izangairik.

C.– Izendapenaren ebazpena, interesdunei jakinarazteaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzaren webgunean argitaratuko da. Horren aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio erakunde publikoaren Zuzendaritza Nagusiari.

9.– Esleipenaren ondorioak.

Osasun-arloko zerbitzuburu edo atalburu izendatzeak, kasuan kasu, aldi baterako harremana sortuko du, lau urteko epe luzagarrirako, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

10.– Ebazpenaren aurka jotzeko errekurtsioa.

Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken egunaren biharamunetik hasita.

Galdakao, 2016ko urriaren 26a.

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.

ERANSKINA

BARRUALDE-GALDAKAO ESIKO ZUZENDARI GERENTEAREN URRIAREN 26KO 1600/2016
EBAZPENARENA

Merezimenduen baremoa, Barrualde-Galdakao ESiko Galdakao-Usansolo ospitalerako Urologiako atalburuaren lanpostuaren deialdirako.

Merezimenduen baremoa (gehienez, 66 puntu).

Merezimenduen balorazioak fase hauek izango ditu:

I.– Proiektua eta horren defentsa (gehienez 30 puntu).

Izangaiek dagokion zerbitzuaren (/atalaren) antolaketari eta funtzionamenduari buruzko memoria-proiektu bat aurkeztu beharko dute, kalifikazio-epaimahai baten aurrean aurkezpen publikoa egin beharko dute eta epaimahaiko kideek planteatutako galderei erantzun beharko diete.

Fase horretako puntuazioa bi atal hauetan banatuta dago:

a) Aurkeztutako zerbitzuaren kudeaketari buruzko memoria-proiektuaren edukiaren balorazioa (gehienez 15 puntu).

Kudeaketari buruzko memoria-proiektuan, gutxienez, hurrengo atalak garatu beharko dira. Deialdian eskainitako lanpostu bakoitzaren ezaugarrien arabera, deialdiaren ebazpenean, agintaritzaren deitzaileak a.1), a.2) eta a.3) atal hauei dagokien gehieneko puntuazioa zehaztuko du:

a.1.– Antolaketarekin eta kudeaketarekin lotutako atala (gehienez, 6 puntu):

Zerbitzu/atalaren organigrama, bai buruzagitza-postuaren bai horri atxikitako gainerako postuen funtzioak adierazita.

Zerbitzuak/atalak erakunde bereko beste zerbitzu batzuekin duen harremana.

Buruzagitza/atala kudeatzeko plana, antolaketa-helburuak definituta, hobetu beharreko eremuak aztertuta eta hautemanda eta horiek lortzeko egokiak diren neurriak identifikatuta. Horrekin batera, esleitutako baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak modu efizientean erabiltzeko konpromisoa edo plana.

a.2.– Osasun-laguntzarekin lotutako atala (gehienez, 6 puntu):

Osasun-laguntzako zerbitzuen zorroaren deskribapena.

Osasun-laguntzaren helburuak eta adierazleak finkatzea, eta horrekin batera, horien etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema bat.

a.3.– Irakaskuntzaren eta ikerketaren atala (gehienez, 3 puntu):

Zerbitzu/atalako irakaskuntzaren plangintza zehaztea.

b) Memoria-proiektua balorazio-batzordearen aurrean publikoki aurkeztea (gehienez, 15 puntu).

Proiektuaren aurkezpen publikoa baloratzeko orduan, memoria-proiektuaren defentsa modu argian eta zehatzean egitea baloratuko da, baita horren alderdi esanguratsuenak azaltzeko ahalmena ere. Dagokion aktan, kide bakoitzak hautagai bakoitzari emandako puntuazioaren justifikazioa jaso beharko da. Proiektuaren defentsaren argitasuna eta zehaztasuna baloratuko dira, baita proiektuaren alderdi esanguratsuenak azaltzeko ahalmena ere.

II.– Merezimenduen balorazioa (gehienez, 30 puntu).

Puntuazioa honela banatuko da:

II.1 Laneko esperientzia (gehienez, 13 puntu).

Dagokion espezialitatean fakultatibo gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,0500 puntu.

Dagokion espezialitatean atalburu gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,0750 puntu.

Dagokion espezialitatean zerbitzuburu gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

Dagokion espezialitatean osasun-arloko administrazio publikoetako zuzendari gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

Osakidetza eta Gizarte Segurantzaren arloko zerbitzu-erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako edo edozein administrazio publikotako osasun-zerbitzuetan egindako lana lan-esperientzia gisa baloratuko da, baita Europar Batasuneko beste estatu etako sare publikoko osasun-zerbitzuetan egindako lana ere.

Guztizko denbora zenbatzeko, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan eta hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak ez dira zenbatuko. Ildo horretan, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

II.2. Prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren zabalkuntza (gehienez, 17 puntu).

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, puntuazioa 0,1 puntukoa izango da kreditu bakoitzeko.

II.2.1. Kudeaketan prestakuntza izatea (gehienez, 3 puntu).

Osasunaren arloko kudeaketarekin lotutako ikastaro bakoitzera joateagatik emango den puntuazioa, iraupenaren arabera:

- 20 ordutik 30era: 0,2000 puntu.
- 31 ordutik 50era: 0,3000 puntu.
- 51 ordutik 100era: 0,4000 puntu.
- 101 ordutik 200era: 0,5000 puntu.
- 200 ordutik gora: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, osasun-erakundeek, eta kasuan kasu, elkargo profesionaletan edo elkarte zientifikoek emandako ikastaroak baloratuko dira. Era berean, Osakidetza edo edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioaren arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere baloratuko dira, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketaren baten barrukoak ez badira.

II.2.2. Espezialitateko etengabeko prestakuntza (gehienez, 3 puntu).

Dagokion lanpostuko espezialitatearekin lotutako ikastaro bakoitzera joateagatik emango den puntuazioa, iraupenaren arabera:

- 20 ordutik 30era: 0,2000 puntu.
- 31 ordutik 50era: 0,3000 puntu.

- 51 ordutik 100era: 0,4000 puntu.
- 101 ordutik 200era: 0,5000 puntu.
- 200 ordutik gora: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, osasun-erakundeek, eta kasuan kasu, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako ikastaroak baloratuko dira. Era berean, edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere baloratuko dira, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

II.2.3 Graduondoko prestakuntza (gehienez, 5 puntu):

- Doktorea: 3 puntu.
- Doktorea cum laude: 4 puntu.
- Graduondoko masterra: 2 puntu.
- Unibertsitateko aditu/espezialista: 1 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna edo ikasketa aurreratuetako diploma: 1 puntu.
- Doktorego-ikastaroa, doktorego-ikastaroetako bikain edo ohorezko matrikula bakoitzeko (gehienez 10 ikastaro): 0,1000 puntu.

Doktore, doktore cum laude, ikertzeko nahikotasun edo ikasketa aurreratuetako titulu bat lortzeko balio izan duten programetako doktorego-ikastaroak ez dira baloratuko.

II.2.4 Jarduera zientifikoa (gehienez, 3 puntu).

Dagokion espezialitatearekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratu, txostenak aurkeztu, komunikazioak egin, hitzaldiak eman edo mahai-inguruetan parte hartzeagatik:

- Eskualde bateko txosten-aurkezpen bakoitzeko: 0,2500 puntu.
- Txosten-aurkezpen nazional bakoitzeko: 1,000 puntu.
- Nazioarteko txosten-aurkezpen bakoitzeko: 1,500 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,1500 puntu.
- Ahozko komunikazio/poster nazional bakoitzeko: 0,6000 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,0000 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,2000 puntu.
- Mahai-inguru nazional bakoitzeko: 0,7500 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 1,2500 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,0000 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.

- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,0000 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.
- Tesina bakoitzeko: 1,5000 puntu.

II.2.5 Irakaskuntza-jarduera (gehienez, 3 puntu).

- Medikuntzako fakultateko katedraduna, dagokion espezialitatekoa (urteko): 1,0000 puntu.
- Medikuntzako fakultateko irakasle titularra, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,5000 puntu.
- Medikuntzako fakultateko irakasle elkartua, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,2500 puntu.
- Egoiliarren irakaskuntzarako onetsitako tutorea, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,5000 puntu.
- Etengabeko prestakuntzako programa ofizialetako irakaskuntza (orduko: 0,050 puntu).

III.– Euskara-ezagutza (gehienez, 6 puntu).

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta berau garatzeko arauetan jasotakoaren arabera baloratuko da.